

# LGTBIQ+FOBIAREN AURREAN, ANTOLAKETA KOLEKTIBOA

Gaur, maiatzaren 17an, LGTBIQ+fobiaren aurkako egunaren harira, gogorarazi nahi dugu LGTBIQ+fobia egiturazko indarkeria mota bat dela, oraindik ere oso presente dagoena eta egunerokoan, arlo sozialean zein instituzionalean zeharkatzen duena. Ez da jarrera indibidualetara mugatzen; aitzitik, heteronorman eta genero-binarismoan oinarritutako arau eta praktika sozial zein instituzionalek eusten diote, eta horiek bazterketa, diskriminazioa eta eskubideen ukazioa legitimatzen dituzte. Hedabideek eta erakundeek, oro har, LGTBIQ+fobiaz hitz egiten dute eraso larriren bat gertatzen denean; hala ere, ia ez da ikusgarri egiten ez komunikabideetan ez gizartean, kalean, lanean, hezkuntza-zentroetan edo aisialdi guneetan, besteak beste, intentsitate desberdinetan agertzen denean. LGTBIQ+fobiari lotutako indarkeriak oraindik oso presente daude (irainak, diskriminazioa, begirada oldarkorrak, ikusgai agertzeko beldurra) LGTBIQ+ pertsona askoren bizitzetan, baita LBT emakumeen, pertsona migratuen, adinekoen zein gazteen, aniztasun psikikoa duten pertsonen bizitzetan ere... eta horrek eragozten die eta ukatzen die gainerako biztanleen parean libre eta berdintasunez bizitzeko eskubidea.

Azken urteotan, gorroto-diskurtsoen ugaritzea ikusten ari gara, alderdi politikoek eta eskuin muturreko taldeek sustatua, lortutako eskubideak atzera botatzea helburu dutena. Ez dira diskurtso bazterrekoak; aitzitik, badituzte oihartzun mediatikoa, babes instituzionalak eta interes ekonomikoekin loturak, eta horrela nazioarte mailako aliantza antigenero bat eratzen ari dira, gure bizitzak mehatxatzen dituenak. Mugimendu antigeneroen gorakada estuki lotuta dago bazterketaren beste logika batzuekin, hala nola arrazakeriarekin, sexismoarekin edo klasismoarekin; horiekin partekatzen dituzte kontrol sozialerako eta eskubideak ukatzeko helburuak.

Horregatik, maiatzaren 17 honetan azpimarratu nahi dugu ezin dugula LGTBIQ+fobiaren aurkako borroka kausa isolatu gisa ulertu. Justizia sozialaren aldeko borroken parte banaezina da. Egiturazko desberdintasun anitzei aurre egiteko, aliantzak ehundu eta beste gizarte-mugimenduekin batera eraiki behar dugu, guztion eskubideen defentsan. Defenda dezagun sexu- eta genero-aniztasuna besteekin batera.

**DENOK BATUTA INDARTSUAGOAK GARA!**

**ATERA GAITEZEN KALERA LGTBIQ+FOBIARI  
LOTUTAKO INDARKERIA GUZTIEI AURRE EGITERA!**